



ZIRRIBORROA

2024KO URTARRILAREN 25EKO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko urtarrilaren hogeita bostean, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar eta Maria Carolina Aguirre Mastrangelo.

Haritz Antoñanzas Urdangarin zinegotziak ezin etorria adierazi du.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Iñaki Eskisabel Zurututza kontu-hartzaileak ere bileran parte hartu du.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2023ko abenduaren 14an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III.- ORDENANTZA FISKALEN AKATS ZUZENKETA.-

2023ko urriaren 11n, Osoko Bilkurak Ordenantza Fiskalen aldaketa eta bere testuaren egokitzapena onartu zituen hasierako izaeraz, eta iragarkia 2023ko urriaren 20ko 203 zenbakidun GAO n argitaratu zen.

Arazuko jendaurreko informazio epean alegaziorik aurkeztu ez zenez, behin betikotzat jo ziren Udal Batzarrak 2023ko urriaren 11an hartutako hasierako erabakiak, Ordenantza Fiskalak aldatzekoak, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Iragarki hau 2023ko abenduaren 28an argitaratu zen 248 zenbakidun GAO n.



Ordenantza Fiskaletan, eta zehazki azoka zerbitzuei dagozkien tasetan, akats bat atzeman da postu eta m2ko urtean aplikatu beharreko tasan. Azken aldaketa onartu zenean, tasa hau 23,44 €-koa izango zela jaso zen. Hau honela, 2023ko Ordenantza Fiskalekiko % 24,28ko igoera aplikatuko litzaioke tasa honi. Igoera honek ordea, % 2,7koa izan beharko luke.

Honen guztiaren aurrean, Osoko Bilkurak aho batez, azoka zerbitzuen tasen baitan, postu eta m2ko urtean aplikatu beharreko tasaren zuzenketa onartu du, hau 18,86 €-tan finkatuz.

IV. KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-TEA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du aurrekontuetan inbertsioei buruz jardun zutenean, 1.244.000 €-ko kopurua azaldu zitzaizela. Aurretik egin beharreko lan bat bazela ikusten zuten, zenbait urterako ze inbertsio plan zituzten eta urtean urteko ze aurreikuspen egin beharko litzatekeen eta zein baliabide izango zituzketen. Horren guztiaren aurreikuspen plan bat egitea planteatu zutela eta orain, 2 hilabete eskas pasa direnean, hau aurkezteak beraiek esandakoa baiesten duela. Egin izan balitz, horrelako gauzak saihestuko zirela eta horregatik ez dutela gogoko kreditu aldaketa hau.

Alkateak dio aurrekontuetan, inbertsio atalean, ezin zitekeela hau kontenplatu. Inbertsio hauek denak aurreikusita zeudela, baina hau ezin zitekeela beste modu batera egin, aurrekontuak ez dutela gehiagorako ematen. Aurretik adostu bazuten ere, orain kreditu aldaketa hau egingo luketela berdin, prozedura berbera izango litzatekeela: kreditu gehigarri bitartez, denak ados egonez gero, kreditu aldaketa hau onartzea. Aurrekontuek ez luketela inondik inora biderik emango inbertsio hauek burutu ahal izateko.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botoz (EAJ-PNV), aurkako botorik gabe eta 5 abstentziaz (EH Bildu), honako akordio hauek hartu ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 1 zenbakidun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:





KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	1.220.000,00
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		1.220.000,00 €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
VIII	Finantza aktiboak	1.220.000,00 €
GUZTIRA		1.220.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

V.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO 1., 2. ETA 3. AZPIFASEAK BURUTZEKO OBREN KONTRATUAREN HIRUGARREN ALDAKETA ESPEDIENTEAREN HASIERA.-

Kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko obren zuzendaritzak kontratua aldatzeko beharra adierazi dio kontratazio organoari.

Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanen esleipena 2022ko martxoaren 31ko Osoko Bilkuran erabaki zen eta lan hau-ek Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L.ri esleitu zitzaizkion lau milioi hogeita hamabost mila berrehun eta hirurogeita hamahiru euro eta hirurogeita hiru zentimo (4.035.273,63 €) gehi BEZari dagokion zortziehun eta berrogeita zazpi mila lauhun eta zazpi euro eta berrogeita sei zentimo (847.407,46 €)ko prezioan.

Kontratua 2022ko maiatzaren 3an formalizatu zen, eta zuinketa egiaztatzeko akta 2022ko ekainaren 6an egin zen, kontratista ados zegoela.

2022ko apirilaren 4ko Tokiko Gobernu Batzordean obra-zuzendaritza zerbitzua Jovino Martinez Sierrari esleitu zitzaion.

2022ko urriaren 13an, Osoko Bilkurak, obra zuzendaritzak aldatutako lehen proiektu bat idaztea onartu zuen, metalezko pasabide bat egin behar zelako, aurrefabrikatutako egitura aldatu zelako eta euste-lanak eta lur-mugimenduak aldatu zirelako. 2022ko urriaren 27an egin zen bilkuran berriz, kontratu hau aldatzeko espedientea onetsi zuen.

2023ko maiatzaren 4an berriz, Osoko Bilkurak, obra zuzendaritzak aldatutako bigarren proiektu bat idaztea onartu zuen, hormak drainatu eta iragazkaiztu behar zirelako, lurzatian zegoen saneamendua desbideratu behar zelako, megafonia-instalazioaren zentralizazioa eta araudi berrira egokitzeko eta pasabidearen egitura metalikoaren suaren



aurkako tratamendua egin behar zelako. 2023ko maiatzaren 25ean egindako bilkuran, kontratua aldatzeko bigarren espedientea onetsi zuen.

Obra zuzendaritza daraman Jovino Martinez Sierrak 2024ko urtarrilaren 24an egin duen txostenean adierazten duenez, hainbat faktore eman dira obra gauzatzeko epeak atzeratzea eragin dutenak. Honakoak dira: 1. proiektu aldatua egitea, indusketa-lanen zailtasunak, plubiometria maila handiak indusketa egin beharreko hilabeteetan eta urak tratatzeko sistemak aldatzea.

Kontratu aldaketa honek ez du obraren prezioa aldatuko.

Aldaketa horien proposamenean egin beharreko jarduketek, obra gauzatzeko epea 8 hilabete eta 15 egunez luzatuko dute obraren 2. fasea egikaritzean. Horrek 2. fasearen amaiera-data, 2024ko otsailaren 6an aurreikusita zegoena, 2024ko urriaren 21 arte atzeratuko luke.

Beraz, obra-epea luzatuta, obra 2024ko urriaren 21ean amaitzea aurreikusten da.

Aipatutako inguruabarren ondorioz, obra-kontratuaren aldaketa beharrezkoa jotzen da.

Kontratua aldatzeko beharra, bi arrazoiek eragiten dute beraz:

1) Kontratua lizitatu zen unean aurreikusi ezin zitezkeen gerora sortutako inguruabarrek, eta kontratua aldatu ahal izateko bete behar diren baldintza hauek betetzen direla esan dezakegu:


- a. Administrazio arduratsu batek aurreikusi ezin izan dituen inguruabarretatik dator aldaketaren beharra.
- b. Aldaketak kontratuaren izaera orokorra ez du aldatzen.
- c. Kontratua aldatzeak kasu honetan ez du kontratuaren zenbatekoa aldatzen. Beraz, lehen, bigarren eta hirugarren kontratu aldaketen baturak ez du hasierako prezioaren ehuneko 50 gainditzen, BEZik gabe.

2) Aldaketak funtsezkoak ez izateak. Obra zuzendaritzak bere txostenean adierazten duenez, urak tratatzeko sistemak aldatzeak ez du funtsezko aldaketa bat suposatzen.

9/2017 Legeak, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuak 205. Artikuluan xedatzen duenez, aldaketa bat funtsezkotzat jotzeko honako hauek bete behar dira:

- 1- Aldaketak ezartzen dituen baldintzak hasierako kontratazio-prozeduran jasota egon balira aukera eduki izana hasieran hautatutako hautagaiez beste batzuk hautatzeko, hasieran onartutakoaz beste eskaintza bat onartzeko edo kontratazio-prozedurarako parte-hartzaile gehiago erakartzeko.
- 2- Aldaketak hasierako kontratuan aurreikusi gabeko modu batean aldaraztea kontratuaren oreka ekonomikoa kontratistaren mesedetan.
- 3- Aldaketak modu nabarmenean zabaltzea kontratuaren eremua.





Hau guztia honela, gaia aztertu ondoren eta Hirigintza Etxebizitza eta Zerbitzuak batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 7 botorekin (EAJ-PNV), 5 abstentziorekin (EH Bildu) eta aurkako botorik gabe, Joxemiel Barandiaran kiroldegia handitzeko 5.1 faseko 1., 2. eta 3. azpifaseak burutzeko lanen kontratuaren hirugarren aldaketa espedienteari hasiera ematea onartu du.

VI.- ONDASUN HIGIEZIN BATEN PARTAIDETZA ZATIEZINEN JABARI OSOA ESKURATZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Udal honek interesa du Suerte del Olivar S.L. merkataritza sozietatearen titulartasuneko den "Lazkaoko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 16. Poligonoan sartutako lursaila. Berrogeita zortzi mila eta hamaika metro karratuko azalera du", Tolosako 2. zenbakiko Jabetza Erregistroan inskribatuta dagoena, 2203 liburukian, Lazkaoko 106 liburuan, 3026 zenbakidun finkaren %47,30eko partaidetza zatiezina erosteko. Finka horren gainarako %52,70eko partaidetza zatiezina Lazkaoko Udalarena da.

Osoko Bilkura honi aurkeztu zaio Udal teknikariek prestatutako klausula ekonomiko eta administratibo partikularren plegua.

Kontratua, prozedura negoziatuaren bidez esleituko da (zuzeneko erosketa) eta aukeratutako lizitazileari esleituko zaio. Horrela, %47,30eko partaidetza zatiezinaren jabe den merkataritza-sozietateari bakarrik eskatuko zaio eskaintza, Udalak eskatutako ezaugarriak eta beharrak asetzen dituen bakarra baita.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 233.817,27 €-koa da, hau da, salerosketaren gehieneko zenbatekoa.

Hau guztia honela, eta ogasun batzorde informatiboaren proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, ondasun higiezin baten partaidetza zatiezinen jabari osoa eskuratzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea erabaki du.

VII.- UDAL-TITULARTASUNEKO EKIPAMENDU SISTEMA OROKORRAK HANDITZEKO ETA GAITZEKO LURZORUAK ESKURATZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Udal honek interesa du bere titulartasuneko ekipamendu-sistema orokorrak handitu eta gaitzeko lurzoruak eskuratzeko.

Lazkaoko Udalak prozedura irekieraren bidez erosiko ditu lurrak, eta horretarako udal-teknikariek prestatu dute hura arautuko duen plegu ekonomiko-administratiboa. Plegu honen xedea da, indarrean dagoen udal-plangintzak urbanizaezin gisa sailkatutako lurzoruan kokatuta egonik, plegu honen goiburuan adierazitako helburuei erantzuteko ezaugarri egokiak dituzten lurrak eskuratzeko, prozedura irekiaren bidez.

Lazkaoko Udalaren 2024. ekitaldiko aurrekontuan 660.000,00 €-ko aurrekontu-partida ageri da plegu honek arautzen dituen lurzoruak erosteko.



Hau guztia honela, eta ogasun batzorde informatiboaren proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aho batez, udal-titulartasuneko ekipamendu-sistema orokorrak handitzeko eta gaitzeko lurzoruak eskuratzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea erabaki du.

VIII.- ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA-REN ETA LAZKAOKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENAREN LUZAPENA.-

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zainketetako eta Gizarte Politiketako Departamentu-aren eta Lazkaoko Udalaren artean sinaturik dagoen Etxeko Laguntza Zerbitzua finantza-tzeko hitzarmena urtebetez luzatzeko proposamena heldu da Gizarte Zerbitzu, Berdinta- sun eta Adineko Pertsonen Batzordetik.

Hitzarmen hau 2021eko urriaren 1etik 2023ko abenduaren 31 arte egon da inda- rrean, eta orain hau 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31 arte luzatzea propo- satzen da.


Hau horrela izanik, aho batez, Osoko Bilkurak Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zain- ketetako eta Gizarte Politiketako Departamentuaren eta Lazkaoko Udalaren artean Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko hitzarmena urtebetez luzatzea erabaki du, 2024ko urta- rrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31 arte.

IX. GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arra- tsaldeko zazpiak eta hamar direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.


LAZKAOKO
UDALA

